Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

# *Bixi Garmendia San Sebastian*

*Urnieta, Gipuzkoa*
*(1916-2015)*



Aurkibidea

# Biografia



Urnietan jaio zen eta bertan bizi izan da beti. Aita herriko aguazila zuen eta ama, berriz, "telefonista". Ama bereziki langilea zela du gogoan; askotan, amak lanean laguntza behar izaten zuenean, hainbat baserri eta etxetara mezuak helarazteko lana jartzen zion Bixiri. Amak Urnietan pentsu-biltegi bat ere zuzentzen zuen. Oso txikia zelarik, herriko beste etxe batera eraman zuten Bixi bertako familia dirudunak haz zezan. Mikaela-enean ez zuen ezeren faltarik izan, baina hogei urte zituela handik ateratzea erabaki zuen. Ezkondu eta bost alaba izan zituen. Gerraurrean, Batzokiaren inguruan biltzen ziren beste lagun batzuekin batera antzerkian aritu zen, baina gerra hasi zenean, han bukatu ziren obrak.

# Zintak

### URN-014

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Data**: 2010-01-21
- **Iraupena**: 73 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k)**: Etxeberria, Eider

# Pasarteak

### 1. Aitona eta aita, aguazil

- **Erref**: URN-014/002
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:01:36. **Bukatu**: 00:02:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Udal langileak

**Laburpena**:
Bixiren aitona eta aita Urnietako aguazilak izan ziren. Aguazilak zer zeregin izaten zituen azaltzen du.

## 2. Ama gazterik hil zenez, senideak sakabanatu zituzten

- **Erref**: URN-014/003
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:02:33. **Bukatu**: 00:05:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena**:
Ama oso langilea zen; emakume txikia eta polita. Gazterik hil zen, baina, bost seme-alaba izan ostean. Eta bost senideak hainbat baserritan banatu zituzten orduan. Bixi etxe dotore batera bidali zuten; hango bizimodua gogoan du.

## 3. Gerrako historiaren orrialde beltzak

- **Erref**: URN-014/006
- **Iraupena**: 0:03:37. **Hasi**: 00:07:59. **Bukatu**: 00:11:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

**Laburpena**:
Gerra garaian, Urnietako hiru lagun Andoainen fusilatu zituzten, PNVkoak izateagatik. Herrikoak ziren salatariak: itxuraz, harakina eta bere semea. Gerrako kartzela Ondarretan zegoen; Bixi han izan zen behin bisitan, eta han ikusi zuen oso gaizki tratatzen zituztela presoak. Gerra garaian, zenbait etxe sakeatu eta erre egin zituzten. Orduan lapurtutako altzariak gogoan ditu.

## 4. Ezkutalekutik atera izanaren prezioa

- **Erref**: URN-014/009
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:13:23. **Bukatu**: 00:15:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

**Laburpena**:
Gerra garaian, kalte handiak egon ziren. Herriko mutil bat ezkutatuta zegoen; baserriko lanetarako bere beharra zuten, ordea, eta azkenean etortzeko konbentzitu zuten. Etorri bezain laster, fusilatzera eraman zuten.

**Transkripzioa**
- Gerra garaian izango zian beste ihes indako jende asko eta...?
- Kalte asko in zuen. Horrek beste baserrien onduan bazeon beste bat, kojua zan ta estudiantia izanduba gaiña. Baserrik giñan hemen ta hemengo frentekok, eta terrenuak alkarren onduan. Ta hoik zian, oain esan deten mutil hoi, ta beste bi arreba, baserriyai zaitzeko. Ta alkarrekin egunero ikusten zian, eta "Batista nun dezue?", Batista zan mutil hau. Ta "A! Utziyozu oain ondo don lekun ondo dao, bai, ta utzi. Honea etortzian edozeiñek daki zer pasako dan ta"; "Ez, emakumia, oain palta itten du oain

harek hemen, lan itteko ganadukin-ta ta". Ta ezetz haik, ikera ematen ziyuen, hainbeste in zittuen. Ta hartan, ta hartan, ta hartan, etorri da girua baburrunak eta eitteko girua. Eta ahal zuen bezela, bi ahizpak eta hiru ahizpa zian ta ahal zuen bezela. Ganaduk'e ahal zittuen bezela, "Ekartzeko, ekartzeko Batista. Ni itten naiz jabe, ni itten naiz jabe". Ta "tanto, tanto" esan, ta hainbesteko palta itten zun, ekarri due ba mutilla. Eta iritsi zanian, atsaldian "ya estaba muerto". Hoik denak egik dia e? Zuek ez dittuzue ikusi, ta zuen edadekuak ere ez, baiño esan'e ez baitittue eitten beti gauzak, baiña hoiek hola dia.

## 5. Fusilamenduak, mendeku pertsonalen ondorio

- **Erref**: URN-014/010
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:15:03. **Bukatu**: 00:16:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

**Laburpena**:
Fusilamendu asko egon ziren gerra garaian, mendeku pertsonalak zirela-eta. Gerran, PNVkoen eta erreketeen artean zegoen borroka. Gerrak kalte handia ekarri zuen.

**Transkripzioa**
- Fusilaketa asko ta izango zian e? Akordatzen...?
- "Venganzas propias". Herri koskorrotan bengantza propiyak, alkarrekin txoakei batzuk eta bengantzak.
- Ordun problema zein zan, politika bai, baiño pertsonan arteko...?
- Politika. Hori zan rekete, ta gu giñan gure "del pnv". Ordun honbeste gaur bezelako kantidadeik ez zan. Hala ikasten gendun guk, hortan jokatzen gendun: bat o bestia. Oain gehiyo ere bai da, baiña ordun ez. Ordun hola zan gauza. Kalte asko in zun harek, kalte asko. Nei pena eman zian zeatikan hor bizi nintzan, ta bi gizonak hanbeste maite niñuenak, ta hainbeste maitte nittunak nik... "Ta zeatik?" eta "Bai, periodikuan'e aitzen giñunan ta" esan ziyon arrebai. Han eraman dittue. Hirurak, hirurak fusilatuak atsaldeako. Ikeragarrik pasa zian e? Ikeragarrik.

## 6. Emakume abertzaleei egindako beheramenduak

- **Erref**: URN-014/012
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:17:18. **Bukatu**: 00:19:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

**Laburpena**:
Ahizpa ezkutuan joan zen Iparraldera Telesforo Monzonekin. Herrian geldituz gero, PNVkoak zirenak zigortu egiten zituzten. Emakumeei egindako beheramenduak aipatzen ditu. Emakume haietako batzuk gogoan ditu. Bere ahizpak ihes egitea lortu zuen; Frantzian lan handia egin zuen, eta handik asko lagundu zion Bixiri.

## 7. Frantziatik bidalitako arropa

- **Erref**: URN-014/013
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:19:56. **Bukatu**: 00:20:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

**Laburpena**:
Frantziako komentu batean, izeba bat moja zegoen. Handik arropa asko bidali izan zion Bixiri.

## 8. Emakumeen jarrera beheramenduen aurrean

- **Erref**: URN-014/015
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:20:55. **Bukatu**: 00:21:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

**Laburpena**:
Gerra garaian, emakumeei ilea mozten zieten zigor gisa. Udaletxera joan, eta han mozten zieten ilea. Negar eta negar aritzen ziren emakumeak orduan; baina, gero, umorearekin hartzen zuten kontua. Emakume haiek euskarazko antzerkian ibiliak ziren, eta horregatik zigortu zituzten.

**Transkripzioa**
- Eta illia moztiana, bueno...
- Aiuntamentua deitzen zittuen. Bost... Sei haidi. Jun zian, aiuntamentua jun zian, ta raka-raka-raka, barberuai deitzen ziyuen, ordun barberua esaten geniyon, eta raka-raka-raka. Negar ta negar denak. Gero parrez e? Gero bakarrik [...] "hoi dek piura" ta "hoi piura" ta "hoi piura".
- Baiño tragua e? Hoik seiñalatuak izango zian ta.
- Bai, hoik zian ba geo antzerkiya iten gendunak, kuadrilla hoi giñan denak. Nei, nei ez zien, nekin ez zian sartu, baiño bestekin bai.
- Neska hoik danak antzerkiyan ibiltzen zian.
- Bai. Haiek? Bai. Nere anaiya're bai, ta nere ahizpa zaharrena, bueno, "aquélla era de los papeles más importantes" in zuna. Dena euskeraz e?

## 9. Zinegotziari pilotarekin emateagatik izandako ondorioak

- **Erref**: URN-014/019
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:23:51. **Bukatu**: 00:24:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Politika eta Franco
- Lanbideak » Udal langileak

**Laburpena**:
PNVkoak kartzelara sartzen zituzten. Behin, pilotan zebiltzala, zinegotziren bat

pasa zen handik, eta pilotarekin jo zuten (nahita, itxuraz); han zeuden guztiak atxilotu egin zituzten.

**Transkripzioa**
- Kartzela'de sartzen zittuen PNVkuak. Eta geo batian, jai bat, jaiya zan, ez dakit ze in zuen, txoakei bat: pelota frontoiya ordun kontzejupian izaten zan, oain aiuntamentua dagoneko... Ta pelotan zabiltzala, kontzejalen bat pasa in biher zula aiuntamentua. Ta pelotazaliak pelotakin jo, propiyo jo omen zun. Total, kartzela denak.
- Hara!
- Eta atsalde hartan futbola. Futbolako entradak eta denak hartuk, eta nola jun? Ta baten bat konkistatu due "Atsaldian jun biher diagu partidua, ta ze in biher deu?". Ta nolabaitte moldatu zuen, bai, ta atsaldian futbola ikustea jun zian.
- Nola atea ote zian?
- Ez dakit, ez dakit nola in zuen. [...] Ta pena hoi izaten zula alkatiak, utziya. Ez nekin utzi ziyoenik juten haidi. Txoakeiok "sin fundamento".

## 10. Antzerkian aritu zireneko gorabeherak

- **Erref**: URN-014/022
- **Iraupena**: 0:03:28. **Hasi**: 00:26:54. **Bukatu**: 00:30:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Antzerkia

**Laburpena**:
10 bat lagun ziren antzerki-taldean. Batzokian elkartzen ziren entseatzeko. Zerbait ahazten zitzaienean, oroitarazleak laguntzen zien. Hainbat lekutan izan zituzten emanaldiak. Orduko jantziak beraiek lortzen zituzten handik eta hemendik. Gerra aurretik ibili ziren antzerkian. Haiek ikustera joaten zen jendea PNVkoa izan ohi zen. Apaiz batek asko lagundu zien, don Jose Ignazio Zubilagak.

## 11. Beraien antzezlan batzuk

- **Erref**: URN-014/023
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:30:22. **Bukatu**: 00:32:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Antzerkia

**Laburpena**:
Antzerkian, hainbat obra antzeztu zituzten: "ya lo creo, uste dinat", "Itziartxo"... Haietako batzuen gaiaz eta nondik norakoez hitz egiten du.

## 12. Irratia ezkutuan entzuten

- **Erref**: URN-014/027
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:34:26. **Bukatu**: 00:35:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

**Laburpena**:
Gerra hasi zenean, hainbat senidek kanpora alde egin behar izan zuten. Garai hartan, ezkutuan entzuten zuten irratia, argiak itzalita, irratiaren gainean zapia jarrita.

**Transkripzioa**
- Nola akordatzen zea gerra hasi zala edo, nola...?
- Ni ez nintzan, ni ez nintzan jun eskapa, nere ahizpakin ta dana. Beste anaiya ta ni geldittu giñan hemen bakarrik. Ez zitzaigun pasa guri. Ta hoik ibilli zian Frantzitik, Bartzelonan, ta leku guztitan ibilli zian.
- Ta nola konturatu ziñaten hemen hasi dala, o nola zeiñek esan zizuen o...? Ama're telefonista zenuen.
- Bai, bai, bai.
- Nola enteratu ziñaten gerra gertu zala, gerra hasi zala?
- Enteratzen giñan nun zetozten'e bai, nun sartu zian ta. Ordun'e radiyuak'e bazian, izkutatuta, baiño "por lo bajín", etxietan jarrita, ta handikan orientatzen giñan. Gabian dena argi guztik itzali ta zapiya jarri gaiñian radiyuai, ta han onduan, esaten zittunak aitzen.

## 13. Gerra garaian kanpoan egondako senideen bizipenak

- **Erref**: URN-014/031
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:42:59. **Bukatu**: 00:44:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

**Laburpena**:
Gerra garaia gogorra izan zen. Anaia eta bera herrian geratu ziren; baina beste 3 senideak handik eta hemendik ibili ziren errefuxiatu gisa. Kanpoan ziren bitartean, ezin izaten zuten gutunik idatzi. Ahizpa gazteenak oso gaizki pasa zuen, ikaragarriak pasa zituen.

## 14. Telefonemak

- **Erref**: URN-014/033
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:45:11. **Bukatu**: 00:47:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Beste batzuk

**Laburpena**:
Ama telefonemez arduratzen zen. Telefonemak zer ziren azaltzen du; jende askok erabiltzen zituen, gutxik baitzeukaten telefonoa.

## 15. Jendeak asko maite zuen ama

- **Erref**: URN-014/035

- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:48:17. **Bukatu**: 00:49:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Neskameak

**Laburpena**:
Inguruan, estimazio handia zuen beraien familiak. Ama asko maite zuen jendeak. Ama Donostian izan zen zerbitzatzen, ezkondu aurretik. Udan, Madril aldera joaten ziren bere nagusiak; eta, behin, amari ere hara joateko eskaini zioten.

## 16. Telefonoaz arduratzen zen ama

- **Erref**: URN-014/037
- **Iraupena**: 0:03:47. **Hasi**: 00:52:29. **Bukatu**: 00:56:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Beste batzuk

**Laburpena**:
Ama telefonista-lanetan aritzen zen. Telefonoa nolakoa zen azaltzen du. Horretarako, gelatxo txiki bat zeukaten. Lan haren nondik norakoak azaltzen ditu.

## 17. Amaren janzkera dotorea

- **Erref**: URN-014/039
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:56:49. **Bukatu**: 00:59:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

**Laburpena**:
Amaren janzkera garai haietan nolakoa izaten zen azaltzen du: astean zehar, era batekoa; eta, asteburuan, erabat bestelakoa.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
*2026-10-28*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com